

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/119

Izenburua: GAZTERIAREN PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1969-1978

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 2 instalazio unitate

Sortzailea: GAZTERIAREN PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Gazteen Frontea 1940ko abenduaren 6ko Legeak sortu zuen, Falangearen atal gisa. Afiliatuen heziketa fisikoa, politikoa eta kulturala esleitu zitzaizkion, Estatuaren zereginetan laguntzeko. Erakundeak ordezkari bat ezarri zuen probintzia mailan; hark idazkari bat eta administratzaile bat izendatzen zituen. Hauek zeuden haren agintepean: kokapen unitateen buruzagitzak eta erlijio, moraleko, propagandako, kanpamendu eta aterpetxeetako eta hezkuntza politiko, aurremilitar eta fisikoko zerbitzuak, baita administrazioa eta intendentzia eta ofizialtasun nagusia ere.

Azaroaren 16ko 2223/1961 Dekretuaren arabera —Gazteen Ordezkaritza Nazionala antolatzen zuena—, Estatuak organo horri esleitu zizkion 21 urtetik beheitiko gizonezko espainiarren gizarte eta politika hezkuntza eta gorputz hezkuntza. Dekretu horren bidez, irakaskuntza horiek ikastetxeetan antolatzeko eta gauzatzeko ahalmena eman zitzaion, Hezkuntza Ministerioarekin koordinatuta, bai eta gazteen eskolaz kanpoko ekimenak eta jarduerak bideratu eta babestekoa ere. Horrela, Mugimenduaren atal horrek eginkizun hauek zituen: xedapenak ematen zituen; eskolaz kanpoko jardueren plan orokorrak antolatzen zituen; gizarte eta politika hezkuntzako, eta, Kiroletako Ordezkaritza Nazionalarekin bat etorrira, gorputz hezkuntzako planak, galdetegiak eta testuak onartzen zituen; haietarako irakasleak proposatzen zituen estatu-zentroetan, eta, estatukoak ez ziren zentroetan, izendatu egiten zituen; gazte elkarteak eta erakundeak erregistratzen zituen; eta abar. Era berean, bi multzo handitan antolatu zen Gazteen Ordezkaritza Nazionalaren oinarritzko egitura: Irakaskuntzen Atala eta Gazteen Atala. Azken horren zuzendaritzapean eta tutoretzapean gelditu zen Gazteen Frontea, honako hauek osatua: Espainiako Gazte Erakundea (OJE), Francoren Gazte Falangeak eta elkarte filialak eta laguntzaileak.

Mugimenduaren Idazkaritza Nagusiko organoak antolatzeko eta garatzeko arauak aldarrikatzen dituen abuztuaren 21eko 2485/1970 Dekretuaren bidez, organo horien probintzia ordezkariak sortu ziren; haien artean zegoen Gazteriaren Ordezkaritza Nazionala. Beren lurralde eskumenaren esparruan, honako hauen ardura ematen zitzaion: kultur jarduerak, kanpalekuak, gazte udaleku eta aterpetxeak, kirol jarduerak, hezkuntza eta prestakuntza aurremilitarra, doktrina ikasteko ikasgelak eta mintegiak, etab.

Franco hil eta Administrazioa berrantolatu ondotik, Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetza sortu zen (apirilaren 1eko 596/1977 Errege Dekretua, apirilaren 1eko 23/1977 Errege Lege Dekretua garatzen duena eta Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetza sortzen duena), Gobernuko Lehendakariaren mende, Estatuako Administrazio Zentralaren organo gisa. Hari zegokion Gobernuaren politika prestatzea, zuzentzea eta betearaztea, arlo hauetan: familia erakundearen, gazteriaren, emakumeen egoeraren, gorputz hezkuntzaren eta kirol praktikaren babesa eta tutoretza. Maiatzaren 20ko 1119/1977 Errege Dekretuak —Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetzaren egitura organikoa ezarri eta Gazteriaren Institutua eta Gorputz Hezkuntzako eta Kiroletako Goi Mailako Ikastetxea erakunde autonomoak sortzen dituen— Gazteriaren Institutua erakunde autonomoaren izaera juridikoa eta egitura organikoa eta funtzionala ezarri zituen. Hurrengo urteetan

hainbat aldiz aldatu zen. (565/1985 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, Kultura Ministerioaren eta haren erakunde autonomoen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duena).

1986ko urtarrilaren 1ean, gizarte laguntzaren eta garapen komunitarioaren, emakumeen, haurren, gazteen eta adinekoen arloko zerbitzuen transferentziak gauzatu ziren, ordura arte Estatuko Administrazioak garatzen baitzituen. Transferentziak urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuan — Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzekoa kulturaren, kirolaren, gizarte laguntzaren eta sustapen soziokulturalaren arloetan— ezarrita zeuden; hauek ziren:

Mugimenduaren funtsezko printzipioak irakasteko eginkizun horri buruzkoa da gorde den dokumentazio urria. Hasiera batean Espiritu Nazionalaren Heziketa deitu zitzaion ikasgai horri; geroago, Gizarte eta Politika Hezkuntza eta Gorputz Hezkuntza. 1969 eta 1978 bitarteko zenbait ikasturtetako irakasleak izendatzeko proposamenak, ziurtagiriak, haien prestakuntza ikastaroak, ikastetxeen erregistroa eta abar gorde dira.

(Halaber, ikusi fitxa hau: 023. Gazteriaren Institutua)

Funtsaren antolamendua:

119.01 GIZARTE ETA POLITIKA HEZKUNTZAREN ETA GORPUTZ HEZKUNTZAREN ANTOLAKETA ETA SUSTAPENA

119.01.01 Gizarte eta Politika Hezkuntzako eta Gorputz Hezkuntzako irakasleen espedienteak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.